

Euskal AEko merkatuko zerbitzuen sektoreko salmentak % 1,8 igo dira 2024. urte osoan


2024. urteko azken hiruhilekoan, salmentak aurreko urteko hiruhileko berean baino % 2,7 handiagoak izan dira

Eustatek landutako datuen arabera, **2024. urte osoan**, Merkatuko beste zerbitzu batzuen sektoreko salmentak % 1,8 igo dira 2023. urtearekin alderatuta, prezio konstanteetan eta egutegiaren eraginak kenduta. Horretan, honako azpisektore hauek eskainitako zerbitzuak kontabilizatzen dira: *Garraioa eta biltegiatzea, Ostalaritza, Informazioa eta komunikazioak, Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak eta Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak*.

Urte osoko bilakaera positiboa izan da sektore guztietan: *Ostalaritzan* % 2,7ko hazkundera izan da, *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan* % 2,3koa, *Garraio eta biltegiatzean* % 1,5ekoa, *Informazio eta komunikazioetan* % 1,1ekoa eta, azkenik, *Jarduera administratibo eta zerbitzu osagarrietan* % 0,9koa.

≡ Euskal AEko merkatuko beste zerbitzu batzuen indizearen urte arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Beste merkatu zerbitzuen indizea

Merkatuko beste zerbitzu batzuen sektoreko salmentek hobera egin dute hiru lurralde historikoetan. Salmenten igoera % 2,1ekoa izan da Araban eta Bizkaian, eta % 1,0koa Gipuzkoan.

Sektoreko landunen indizea, bestalde, % 1,1 igo da 2024an.

2024ko laugarren hiruhilekoan salmentak % 2,7 gehitu dira, 2023ko laugarren hiruhilekoaren aldean. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, dagozkion urtaro-eraginak kenduta, urteko azken hiruhilekoko salmenten hazkundera % 1,7koa izan da.

Merkatuko beste zerbitzu batzuk sektorearen barruan, salmenten urte arteko bilakaera positiboa izan da oro har. *Garraioan eta biltegiatzean* salmenten hazkundera % 4,4koa izan da, *Ostalaritzan* % 2,5ekoa, *Jarduera profesional zientifiko eta teknikoetan* % 2,3koa eta *Administrazio-jardueretan eta zerbitzu osagarrietan* % 0,6koa.

2024ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, hiruhileko artean % 1,5eko igoera izan da *Informazio eta komunikazioetan*, % 1,3koa *Ostalaritzan*, % 1,0koa *Jarduera administratibo eta zerbitzu osagarrietan* eta % 0,5ekoa *Garraio eta biltegiatzean*. *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan*, ordea, salmentak % 0,1 murriztu dira.

Euskal AEko merkatuko beste zerbitzu batzuen indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2024/IV

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	At / A(t-4)
Indize orokorra sektorearen arabera	2,7	1,7	1,8
Garraioa eta biltegiatzea	4,4	0,5	1,5
Ostalaritza	2,5	1,3	2,7
Informazioa eta komunikazioak	0,6	1,5	1,1
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	2,3	-0,1	2,3
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	2,3	1,0	0,9
Indize orokorra lurralde historikoen arabera			
Araba/Álava	3,2	1,9	2,1
Bizkaia	3,4	2,6	2,1
Gipuzkoa	1,3	0,1	1,0
Enplegu-indizea			
Euskal AE	1,1	0,5	1,1

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2025eko Otsailaren 14a

Iturria: Eustat. Merkatuko beste zerbitzu batzuen indizea

Lurralde historikoka, salmenten joera positiboa izan da urteko azken hiruhilekoan, bai urte artean, bai hiruhileko artean. 2023ko azken hiruhilekoaren aldean hazkundera % 3,4koa izan da Bizkaian, % 3,2koa Araban eta % 1,3koa Gipuzkoan. Aurreko hiruhilekoaren aldean, antzera: salmentak % 2,6 igo dira Bizkaian, % 1,9 Araban eta % 0,1 Gipuzkoan.

Euskal AEko *Merkatuko beste zerbitzu batzuk* sektorean langile okupatuen indizea % 1,1 igo da 2023ko laugarren hiruhilekoaren aldean. 2024ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, % 0,5 igo da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren % **93,85eko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62